



ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

Hezkuntza eta Kultura Ministerioko bekaduna  
Zuzenbide Fakultatea  
Deustuko Unibertsitatea  
Unibertsitateen etorbidea, 24  
48007 Bilbo

BIBLID [1137-1951 (2002), 9; 41-53]

# Inglaterra eta Galesen epailetzara sarrera

(Entering the judicature in England and Wales)

**Z**inglaterra eta Galesen indarrean dagoen ordenamendu juridikoak dituen berezitasun ugarien artean, oraingo honetan batean egingo dugu indar; epailetzara sarreran alegia. Izan ere, puntu jakin honetan, aipatutako ordenamenduan gure ingurunekotik asko desberdintzen dituen berezitasun asko atzeman daitezke: epai-karrerarik eza, epaile kopuru oso urria, epaile antolaketa berezia... Epaileak abokatu artean aukeratzeko direnez, abokatu izateko beharrezkoak diren ikasketak aztertuko ditugu. Gainera, lurralde horretan desberdintzen diren abokatu mota biei, *solicitor eta barrister*, hurbilduko gaitzazkio. Ondoren, epai organo nagusietako epaileak nola aukeratzeko diren aztertuko dugu.

**a** continuación examinaremos una de las diversas particularidades que presenta el ordenamiento jurídico vigente en Inglaterra y Gales con respecto a nuestro sistema, como es el ingreso a la judicatura, y que se caracteriza, entre otros, por la ausencia de una carrera judicial, por la escasez de jueces y por una singular organización judicial. Dado que los jueces se eligen de entre los abogados, veremos los estudios que éstos han de realizar y nos acercaremos a las figuras de los *solicitor* y *los barrister*. Por último, analizaremos cuál es el procedimiento a seguir para elegir a los jueces de los órganos superiores de justicia.

**N**ous examinerons ci-dessous les différentes particularités que présente l'ordre juridique en vigueur en Angleterre et au Pays de Galles comparé à notre système, comme, par exemple, l'admission à la magistrature, et qui se caractérise, entre autres, par l'absence d'études judiciaires, par la pénurie de juges et par une singulière organisation judiciaire. Etant donné que les juges sont élus parmi les avocats, nous verrons les études qu'ils ont réalisées et nous nous rapprocherons des figures des *solicitor* et des *barrister*. Enfin, nous analyserons quelle est la marche à suivre pour élire les juges des organes supérieurs de justice



---

1. Sarrera. 2. Abokatutza: epaile iturria. 3. Ingalaterrako eta Galesko epai organo desberdinetara sarrera: 3.1. Epai organoen antolaketa orokorra. 3.2. Magistrates Courts. 3.3. County Courts. 3.4. Supreme Court of Judicature of England and Wales. 3.5. House of Lords: Appellate Committee of the House of Lords. 4. Ondorioak. 5. Bibliografia.

---

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Kontinenteko juristek betidanik ingeles zuzenbidea<sup>2</sup> arraro samartzat jo dute, izan ere, beronen iturriak eta beraien egituraketa<sup>3</sup>, prozedimenduek, eta bestelako instituzio edo erakundeek ez dute antzekotasun askorik, edo behintzat ez gehiegi, gure ingurukoekin<sup>4</sup>. Gure pentsamoldearentzat pentsaezina da Kode Zibilik gabeko Ordenamendu Juridiko bat, eta prozesalistentzat are gutxiago judiziamendu zibila arautzen duen koderik gabekoa. Ezaugarri hauek, Ingalaterrako errealitate ez ezik, bertako Ordenamendu Juridikoaren berezitasunen parte bat besterik ez dira.

Baina, zalantzarik gabe, aipatutako ingeles lurraldeko beste berezitasun bat, epai-boterean atzeman dezakegu: epailearen lana ez da mugatzen parlamentuak sorturiko legea aplikatzera eta interpretatzera; honetaz at, epailea zuzenbidearen iturri da, bere erabakiak aurrekari, *judicial precedents*, bihurtzen direlarik<sup>5</sup>.

Epaitegi eta auzitegien antolaketa espainiar antolaketa-erakiko arras desberdina da. Epaile kopurua oso txikia izanik, askotan epaile bakoitza epai organo bat baino gehiagotan aritzen da. Guretzat hain arraroa gerta daitekeen fenomeno honen adibide asko ikusi eta aztertuko ditugu.

Horretaz gain, aurrerago aski frogatuta geldituko denez, Ingalaterra eta Galesen ez dago epai-karrerarik, ezta epaile izateko azterketa edo unibertsitatea bukatu eta geroko ikasketa berezirik ere (ez daukate gure oposaketa hautapen sistema).

Hauek guztiak kontuan harturik, epaile ingelesengan gure ingurune hurbilekoengandik asko urruntzen dituzten ezaugarriak somatuz, interesgarria iruditzen zaigu aipatutako lurralde horietako epaile eta magistratuen<sup>6</sup> azterketa egitea.

Epaile ingelesei buruzko gai hau berez oso zabala izanik, eta guk idazteko daukagun tartea, aldiz, mugatua izanik, epailetzara sartzeko bideetan indar egingo dugu<sup>7</sup>. Helburu hau lortzeko bidean, eta gaiarekin estuki erlazioaturik, argitasuna aurkitzeko asmotan, beste puntu batzuk aztertu beharko ditugu. Horrela, batetik, Ingalaterrako abokatuen munduan murgilduko gara, batez ere beraien heziketan eta lanean, izan ere, jarraian ikusiko dugunez, epaileak baldintza jakin batzuk betetzen dituzten abokatuen artetik aukeratzen baitira; horretaz gain, lurralde horretako epaibidea, jurisdikzioa, organo desberdinak eta beraien antolaketa funtzionala, instantzia desberdinak, jorratu beharko ditugu, sakontasun askorik gabe bada ere, hauek osatzen dituzten epaileen jatorria aztertzeko.

- 
1. Artikulu hau Ingalaterran, Oxforden, Espainiar Heziketa, Kultura eta Kirol Ministerioaren diru-laguntzarekin 2001eko uztailaren 3 eta irailaren 29 bitartean, *academic visitor* gisa egindako egonaldien fruitu da.
  2. Ingeles Zuzenbideaz hitz egitean, oso garrantzitsua deritzogu lurraldeari dagokionez ohar batzuk egitea: Erresuma Batuak (*United Kingdom*) Ingalaterra, Gales, Eskoziak eta Ipar Irlandak hartzen ditu bere barne. Britainia Handia (*Great Britain*), aldiz, lurralde mugatuago batek osatzen du, Ingalaterrak, Eskoziak eta Galesek hain zuzen ere. Hau argi uztea derrigorrezkoa da, izan ere nahiz eta Erresuma Batua Estatu bateratu bat izan, ez dauka bera osatzen duten lurralde guztiei osotara, uniformeki, aplikatzen zaien Ordenamendu Juridiko bakar bat, ezta epaile egitura bera. Honek lehen begirada batean zur eta lur utz bagaitzake ere, badauka bere azalpen juridiko-historikoa: Erresuma Batuen izatearen beraren ondorio zuzena da, herrialde desberdinak batu ziren garaian sinatu zituzten akordioetan duena jatorria. Honela, nahiz eta 1706tik aurrera Britainia Handi osorako parlamentu bakar bat egon, Eskoziak bere errejimen juridiko eta epaibidearen antolaketa propioak ditu –horrela, adibidez, nahiz eta zuzenbide zibilaren arloan apelazio edo gora jotze organoa berbera izan Britainia Handi osorako (Lorden Ganbera [*The House of Lords*]), eskoziarrek badituzte justiziaren administrazioan eta jardunbidean berezko ezaugarri propio eta desberdinak—. Era berean, Ipar Irlandak, nahiz eta Westminsterreko parlamentuan bere ordezkari izan, badu baita bere parlamentu nazionala –bere eskuduntzen barnean bere legeria propioa ematen duena, sarri askotan beste lurraldeetatik arras desberdina– eta berezko epaile egitura ere. Horrela, zuzenbide ingelesaz aritzean, Ingalaterra eta Eskoziako zuzenbideaz ari garela ulertu behar dugu. Artikulu honetan, aipatutako bi lurralde horietako epaile egituraz jardungo gara.
  3. Ingeles zuzenbidearen iturri bezala, hiru aipatu behar ditugu: epaileek jarraitu eta aplikatzearen ondorioz finkatutako **ohiturazko zuzenbidea** (*common law*), aipatutako lehen iturri honen akats edo okerrak gainditzeko Kantzelariak garatutako **ekitate**, eta gero eta indar gehiago hartu duen **parlamentuko legea** (*act*). Egun, autore gehienak bat datoz jurisprudentzia eta legea, biak, zuzenbide ingelesaren lehen mailako iturri direla baieztatzean (ikus DAVID R. *Los grandes sistemas jurídicos contemporáneos*, Paris: Tolle Lege argitaletxea, 1968; 285. or.). Ekitateari buruz, ikus “Common law and equity”, In: GELDART W-en *Introduction to English law*, 11. argitarapena, Oxford: Oxford University Press, 1996; 19. or. eta hur.
  4. Honela baieztatzen dute, beste askoren artean, ZWEIGERT K. eta KÖTZ, H.ek (*An introducción to comparative law*, 2. argitalpena, Oxford: Clarendon Papers, 1993; 212. or.). Honen arrazoi nagusia, zalantzarik gabe, ingeles zuzenbidearen jatorrian daukagu. Kontinentean erromatar zuzenbidearen eragina nabarmena izan bada, Ingalaterran *Common Law* deritzona zuzenbide erromatarraren eraginetik guztiz at gelditu da.
  5. Aurrekari edo *precedents* hoiak ikasketan sakontzeko, ikus GIFFORD, D. eta SALTER, J.ren *English legal system*, London: Cavendish Publishing limited, 1997; 37. or. eta hur.
  6. Ikusiko dugunez, beraiek ez dituzte epaile (*judge*) eta magistratu (*magistrate*) hitzak guk erabiltzen ditugun zentzu berean erabiltzen.
  7. Gure Ordenamenduan gertatzen den bezala, Ingalaterran eta Galesen ere epailearen lana, funtzioak, independentzia, immunitatea, erantzukizuna... arautuak daude, eta sarri askotan era oso bixi batean. Kontu hauek beste baterako utzi beharko ditugu.

## 2. Abokatutza: epaile iturria

Espainiar Estatuan epailetzara sartzeko bide nagusia eta garrantzitsuena oposaketa bidea baldin bada ere, Ingalaterran eta Galesen ez da horrela. Azken lurralde hauetan, jada aipatu dugunez, epaileak abokatuen artean aukeratzen dira; beraz, epaileen ikasketak zeintzuk diren jakiteko, abokatuenak aztertu beharko ditugu. Hau horrela izanik, lehen galdera bat erantzun behar dugu: nola bihurtzen da pertsona bat abokatu? Zein ikasketa burutu behar ditu?

Lehenengo eta behin, ingeles abokatu edo lege gizon eta emakumeen heziketa<sup>8</sup> gure esparruan ematen denarekiko desberdina dela azpimarratu behar dugu.

Aztertzen ari garen lurraldean, abokatu izateko ez da derrigorrezkoa, gure Estatuan gertatzen ez den bezala, unibertsitatean zuzenbidea ikastea; are gehiago, ikusiko dugunez, kasu batzuetan unibertsitate mailako ikasketak izatea ere ez da beharrezkoa. Honen harira, zuzenbidea ikasi ez duen norbait abokatu izan daiteke. Hau horrela bada ere, egun Ingalaterran eta Galesen abokatu bezala diharduten gehienek unibertsitate mailako ikasketak dituzte, eta zuzenbide fakultatean hiru urtez ikasi ondoren, *Bachelor of Laws* titulua dute<sup>9</sup>.

Inolako zalantzarik gabe, ingelesez beste berezitasun bat abokatuen, edo, hobeto, legearen praktikan lan egiten duten gizon eta emakumeen artean egiten duten desberdintasuna da: abokatuen artean *solicitor*-ak eta *barrister*-ak desberdintzen dituzte. Lurralde horietako lege gizon edo emakumeak bata edo bestea izan daitezke, baina inoiz ez biak.

Bi hauen arteko desberdintasuna ez da heziketa arlokoa soilik. Egun normalean biek

zuzenbidea ikasten dute, baina *bachelor* titulua lortu ondoren abokatu bihurtzeko egin beharreko azterketak edo *degree*-ak, graduondoak alegia, desberdinak dira batzuentzat eta besteentzat, izan ere bakoitzak egin ditzakeen lanak ere desberdin samarrak baitira<sup>10</sup>.

Heziketari dagokionez, egun *solicitor*-ek zuzenbide fakultatean zuzenbidea ikasi ondoren *Legal Practice Course* deritzon ikastaro bat egiten dute Londoneko *College of Law*-n<sup>11</sup>. Ikastaro honetan, etorkizunean egingo duten lanarekin gutuz loturik dauden gaiak landuko dituzte, horien artean, merkataritza zuzenbidea, zerga zuzenbidea eta zuzenbide pribatuko zenbait arlo (oinorde-tza, familia, ondasunak, ondasun higiezinak, ondarea orokorrean eta bere administrazioa...). Ikastaro hau bukatzean azken azterketa bat izaten dute (*Final Examination*), eta azken hau arrakastaz gainditzea lortuz gero, praktikak egingo dituzte esperientziadun *solicitor* baten bulegoan<sup>12</sup>. Bi urtetan praktikak egin ondoren (*training time* delakoa) *solicitor* ikaslea *solicitor* bihurtzen da, baina lana bere kabuz egiteko prestatutzat eman aurretik, epe finko batean, hiru urtetan hain zuzen ere, *assistant-solicitor* bezala, esperientziadun beste *solicitor* baten laguntzaile bezala, aritu beharko du. Denbora honetan, *Law Society*-ak<sup>13</sup> ezartzen duen gutxiengo bat kobratuko du. Epe hau pasatzerakoan, bakarrik jarduteko gai dela suposatzen da.

Zuzenbidea ez den unibertsitateko beste titulu bat, letretakoa zein zientzetakoa, dutenen formazioa edo heziketa desberdin samarra da. Horrela, hauek lehengo urte batean ikastaro juridiko trinko bat egingo dute. Ikastaro honetan zuzenbide ingelesaren oinarri diren 6 ikasgai landu beharko dituzte: kontratu zuzenbidea (*contract law*), jabetza zuzenbidea (*property law*), kontratuz kanpoko erantzukizunaren zuzenbidea (*tort*),

8. Emakumeei 1919ko *Sex Disqualification (Removal) Act*-ean aintzatesi zitzairen abokatu lanetan aritzeko eskubidea.
9. Titulu hau Ingalaterra eta Galesko unibertsitate guztietan honela deitzen da, hain sonatuak diren Oxford eta Cambridge-koetan ezik, azken bi hauetan lau urtetako zuzenbide ikasketen ondoren, *Bachelor of Arts* titulua lortzen baita. Titulu honek ez ditu berez ikasleak abokatu bihurtzen, baina lortzen dutenak abokatu izatera heltzeko egin beharreko azterketa batzuk egiteaz salbu geldituko dira.
10. Askotan *solicitor*-ak gure inguruko prokuradoreekin eta *barrister*-ak abokatuekin lotzen badira ere, hauetariko bakoitzaren lanari begiratzen badiegu, parekotasun hau ez da zuzena. Ingalaterran bieie abokatu (*lawyer*) deitzen zaie, *legal profession*, lege lanbidearen bi adarrak osatzen dituztelarik. Zentzu honetan, ikus HOOD PHILIPS, O. eta HUDSON, A.H.ek, *First book of English Law*, 8. argitalpena, London: Sweet and Maxweel, 1998; 36. orrialdean ondorengoa diote: "Egun lege lanbidea Ingalaterran 2 adar nagusietan zatitzen da, *solicitor*-ak eta *barrister*-ak. Zatiketa horrek ez dauka munduko beste lurraldeetan parekorik".
11. Londoneko ikastetxe honetaz gain, zenbait probintzietan *solicitor*-ak hezitze ikastetxeak daude, betiere denak *Law Society*-ren zuzendaritzapean daudelarik –guztira bost daude: hiru London inguruan, eta bi Ingalaterrako iparraldean–. Hauetaz gain, egun *Polytechnics* deritzen 10 eskola gehiago dituzte *solicitor*-en prestaketarako. *Law Society*-a *solicitor*-en elkargoa da. Ikus honi buruz 13. oharra.
12. Gure artean "pasantia" izenarekin ezagutzen dena litzateke, beraiek *articled* deitzen diote. Praktika hauek egiten diharduenari *articled clerk* deitzen diote. Hauek berez ez dute lansaria jasotzeko eskubiderik, baina zerbait ordaintzen zaie.
13. *Law Society*-a, arinago iragarri dugun bezala, *solicitor*-en elkargoa da, gure inguruko abokatuen elkargoaren parekoa. XVIII. mendean sortua, elkargo honen partaide izatea ez da derrigorrezkoa *solicitor*-entzat, baina *solicitor* bezala aritzeko bere baimena behar da –egun, *solicitor*-en %85 bere partaidea da–. Edozein elkargoren ardurak eta betekizunak ditu. Horrela, elkargoak lanbidearen praktika, *solicitor*-en jokabidea, diziplina eta bezeroekiko harremana arautzen ditu. Aipatutako hauen barnean, 1974ko *Solicitor Act*-ek, egun elkargoa arautzen duen parlamentuko legeak, honako hauek egiteko ahalmena aintzatesen dizkio: bere partaide izateko betekizunak ezartzea, betiere *Lord Chancellor*-aren kontrolpean; elkargoaren partaide izateko kuotak ezartzea eta batzea; elkargokideei informazioa ematea; elkargokideen formazioa eta heziketa –bai *solicitor* bihurtzeko, baita geroagokoa ere–; partaideen jokabidea eta diziplina –egun gai hori 1993koa den *The Guide to the Professional Conduct of Solicitors*-en arautzen da, eta horretarako *The Solicitors Disciplinary Tribunal* delako beraien elkargoko barne-epaitegi berezia dute–. *Law Society* honen gobernua *The Council of the Law Society*-aren eskutan dago. Organo hau oso kritikatu izan da bere osaketa dela eta (dituen kideak, 70 hain zuzen ere, kopuru txikia dela; beraien artean emakumezkoak oso gutxi direla...).

zuzenbide konstituzional eta administratiboa (*constitutional and administrative law*), zigor zuzenbidea (*criminal law*), eta ekitatea (*equity*). Gainera, *The Common Professional Examination* delako azterketa gairitu beharko dute. Hau pasatu eta geroko heziketa, unibertsitatean zuzenbidea ikasi dutenen berbera da.

Zein da *solicitor* baten lana? Zuzenbidearen zein arlotan aritzen da? *Solicitor* hauek beraien bulegoak Ingalaterra eta Gales osoko lurraldeetan banatuta dituzte, eta gure inguruko abokatuen antza handia dute: lanbide liberal eta independente bat dute; batzuk bakarrean aritzen badira ere, askok taldeka dihardute<sup>14</sup>, eta bezeroen aholkularitza da beraien jarduerarik garrantzitsuenak, hauekin harreman zuzen eta sarri askotan estua dutelarik. Beste lan batzuren artean, kontratuak idazten dituzte, testamentuak burutzen dituzte, eta oinordetzaren inguruan sortzen diren arazoak aztertzen dituzte (*probate matters*). Ondasun higiezinak eskualdatzean sortzen diren arazoez ere arduratzen dira (ingeles *conveyancing* deitzen dena).<sup>15</sup>

Egun Ingalaterra eta Gales osoan 66.000 *solicitor* inguru daude<sup>16</sup>, normalean gai desberdinetan espezializatuta (familia, testamentuak, merkataritza arazoak...).

Baina zalantzarik gabe gure inguruko abokatuetatik gehien aldentzen dituenak, *solicitor* delako ingeles abokatu hauen epaileen aurreko jardura da. Horrela, *solicitor*-ak edozein prozesu prestatzeko gai badira ere, prozesu hau zein epaile-maila edo instantzian garatuko den berdin izanik, ezin dute edozein epaileren aurrean jardun: beraien epaile aurreko jardura behe maila-

ko epaileetara, *Magistrates Courts* eta *County Courts*-etara, mugatzen da. Ezin dute goragoko mailakoak diren *High Court*, *Crown Court*, *Court of Appeal* edo *House of Lords*-en aurrean aritu<sup>17</sup>.

*Barrister* delako abokatuen prestaketa arinago aipatutako *solicitor*-en antzekoa bada ere, lehenengo hauek, jarraian aztertuko dugunez, beren lanari dagokionez, heziketa gogorragoa, sakonagoa, dute.

*Barrister* bihurtu nahi duenak *Inn of Court*<sup>18</sup> batean ikasle bezala izena eman behar du, horrela *bar-student*, abokaturako ikasle, bihurtzen delarik. *Inn of Court* bakoitzak bere lege eskola dauka (*School of Law*) eta *barrister*gai bakoitzak, *barrister* bihurtu nahi duenak, bertan urte beteko ikastaroa egin beharko du<sup>19</sup>. Ikastaroa bukatutzat emateko, ikasleak azken azterketa bat gairitu beharko du (*Bar final examination*). Azterketa hau gairidituz gero, ikasleak beste urte betez egon beharko du bere lanean gutxienez bost urte darmatzan beste *barrister* bat edo batzuekin<sup>20</sup>.

*Barrister*gai bakoitza, bere *Inn of Court*-ak antolatzen dituen eta antzinako *barrister* eta beraien ikasleen arteko gai juridikoak jorratzen zituzten afari-eztabaida ponpoxoetan jatorria duten afari batzuetan partehartu ondoren, *Inn* bakoitzak bere ikasleak behin betirako *barrister* bihurtuko ditu *Call to the bar* deritzon azken ospakizun batean (*Call night*).<sup>21</sup>

Egun Ingalaterra eta Galesen, osotara 8.500 *barrister* inguru daude, gehienek beraien bulegoak Londonen dituztelarik. Probintzietan oso *barrister* gutxi aritzen dira<sup>22</sup>.

14. Taldean beste *solicitor* batzuekin bakarrik aritu ahal izango dira, inoiz ez beste lanbide batzuk dituztenekin, azken hau 1974ko *Solicitor Act*-en 20. atalak debekatzen baitu.
15. *Solicitor*-ek egiten dituzten lan konkretuen zerrenda, ikus KINDER-GEST, P.en *Droit anglais: institutions politiques et judiciaires*, 2. argitalpena, Paris: Librairie Générale de Droit et de Jurisprudence, 1994; 427. or. eta hur.
16. Hau 1995eko datua da. Urte honetako uztaillean *Law Society*-ak argitaraturiko *Law Society Annual Statistic Report 1995*-etik hartua (1.3 taula, 16. orrialdean).
17. Geroago aztertuko dugunez, 1990ean parlamentuak emandako *Courts and Legal Services Act*-z geroztik, gauzak apur bat aldatzen doaz.
18. XIV. mendetik hona, *Inn of Court*-ak *barrister*-en onarpenaz eta heziketaz arduratu izan dira. Egun lau *Inns of Courts* daude, denak Londoneko zentruan kokatuta, *Royal Courts of Justice* goi mailako auzitegiak dauden eraikinetik oso hurbil: *Honourable Society of Lincoln's Inn*, *of the Inner Temple*, *of the Middle Temple* eta *of Gray's Inn*. *Inn* hauek *barrister* zaharrenek zuzentzen dituzte, esperientzia gehien dutenek –*bencher*-ak gure dekanok irateke–. Lau *Inn* hauen gainetik, koordinazio lanak egiten dituen *The General Council of the Bar* dago. Azken honen eginbeharren artean, ikasleen heziketa (horretarako *The Council of Legal Education* dute), heziketa arrakastaz burutu ondoren elkargoan onartzearen ardura, eta elkargoaren kudeaketa eta administrazioa azpimarra genitzake. Horretaz gain, *barrister*-a abokatu lanerako ezgai dezakete (*disbarred*), horren lan duina egiteko desgaitzen duen jokabide bat egiten badu –horrela, *barrister* guztiak beren koordinazio organoak ezarritako *Code of conduct*-a errespetatzera behartuta daude–. *Inns of Courts* hauen jatorriari buruz, ikus. JENKS, E. *El Derecho inglés*, Madrid: Reus, 1930; 97. or. eta hur.
19. Egun posible da unibertsitatean zuzenbidea ez den beste edozein arloko karrera bat ikasi duen batek *Inn* batean izena ematea, eta, horrela, dagozkion ikasketak burutu ondoren *barrister* izatea, baina hori egin ahal izateko, *Inn* horretan sartu ahal izateko, onarpen azterketa (*Certificate of Eligibility*) gairitu beharko du. Unibertsitateko titulurik ez dutenek ere, *Common Professional Examination* deritzona gairiditzen badute, *Inn* batean eman dezakete beren izena. *Inn* batean sartzea lortuz gero, heziketa berbera da denentzat, zuzenbidean lizentziatuentzat, unibertsitateko beste tituluren bat dutenentzat eta unibertsitateko titulurik ez dutenentzat. Atzerriar zuzenbide lizentziatuek Ingalaterra eta Galesen abokatu bezala aritu nahi badute –eta aukeran, etorkizunean bertako epaile izan nahi badute–, *Common Professional Examination* delakoa eta ingeleseko azterketa gairitu beharko dute.
20. Hau ere guk “pasantia” bezala ezagutzen dugun praktikaldia litzateke –beraiek *reading in Chambers* edo *pupillage* deitzen diote–. Beste *barrister* batzuekin ikasten dagoen bitartean ikasleari *pupil* (euskaraz, ikasle) deitzen diote, eta ikasleak irakasleari, jada *barrister* denari, *Master in Law* deitzen dio. Praktikaldian ikasleari ez zaio ordaintzen, eta askotan ikasleak ordaintzen dio *barrister*-ari praktika horiek bere bulegoan egiten uzteagatik. Praktikak bukatu aurretik, ikasleak bere kabuz kasu batzuk eraman ditzazke.
21. *Bar*, *barrister* multzoari, kolektiboari deitzen zaio.
22. Datu hau 1995eko urrikoa da, *The General Council of the Bar, Annual Report 1995*-tik aterata (23. orrialdea)

*Barrister* hauen lanari dagokionez, *solicitor*-ekin konparatuz desberdintasun nagusia epaile aurreko lanean dago: *barrister*-ak mota guztietako prozesuak prestatu eta epai ororen aurrean ager daitezke (beheragokoak zein goragokoak).

Gainerako lanei dagokienez, batez ere aholkuak ematen dituztenean, *solicitor*-en lan berdina egiten dute (kontratuak idatzi, testamentuak burutu...), beraz, zentzu honetan abokatu mota biak elkarren kompetentzia badira ere, *barrister*-ak gai batzuetan espezializatu dira (irizpen txostenak ematen dituzte, fiduzia inguruko arazoak...)23.

Horrela, medikuntza munduko terminologia erabiliz, *solicitor*-ak sendagile orokorrak liriateke, eta *barrister*-ak espezialistak.24

*Solicitor* eta *barrister*-en arteko beste desberdintasun bat, beraien ordainsarian ikus genezake: bigarrenek ordainsaria ezartzeko askatasuna daukaten bitartean (beraien izen onaren arabera ezarriko dute, edo kasuaren zailtasunaren arabera), *solicitor*-ek ez daukate askatasunik (beraien elkargoak, *Law Society*-ak, ezartzen dituen ordainsariak errespetatu behar dituzte)25.

Abokatu mota bien arteko desberdintasunetik gehien harritzen gaituena, hauetariko bakoitzak bezeroekin duen harremana da: *solicitor*-ek bezeroekin harreman zuzena duten heinean, *barrister*-ei beraien ohorean oinarrituz beraien *Code of Conduct*, jokabide kodeak, debekatu egiten die harreman zuzen hau. Azken hauek *solicitor*-ekin edo beste ogibide batzuetako profesionalekin bakarrik aritzen dira zuzenean. Honela, norbanako batek *barrister* baten zerbitzuak behar baditu, *solicitor* baten bidez eskatuko dizkio26.

Bi abokatuen arteko beste desberdintasun bat, bakoitzaren karreraren garapenean dago: *solicitor*-ak bizitza guztian *solicitor* izango dira,

ospetsuagoak, hobeak edo txarragoak; *barrister*-ak, aldiz, epaile izatera edo goi mailako *barrister* izatera, *Queen's Council* alegia, hel daitezke.27

Lehenengo posibilitatea (epailetzara sarre-ra) geroago jorratuko dugu; orain *Queen's Council* edo *Queen's Chambers* deritzen abokatuen irudian sakonduko dugu28.

Aipatutako azken hauek, abokatu lanbidearen gorengoa egituratzen dute: arrakasta handiena duten abokatuen multzoa da. Beraien lanean gutxienez hamar urte daramatzaten *barrister*-en artetik aukeratzten dira, beraien ospe, izen ona eta esperientzia kontuan izanik. Maila hau lortzeko, *barrister*-ek beraien horretarako eskakizuna egin behar diote *Lord Chancellor*-ari29. Urtero azken honek proposatutakoen artetik Erreginak gorengo mailako abokatu hauek izendatuko ditu.

*Queen's Council* deritzen abokatu hauek instituzio honen jatorrian Koroarentzat (*Crown*) egiten zuten lan. Egun ez da horrela, baina jatorri horren ondorioz, ezin dira inoiz honen kontra aritu. Horrela, auzietan eta, batez ere, auzi penaletan, akusazioa edo salaketa Koroak egiten badu –honen izenean Ministerio Publikoak (*The Director of Public Prosecutions*)–, auzi horretan parte hartzeko Koroari baimena eskatu behar diote (*leave*). Betekizun hau egun formalitate hutsa da, betiere baimen hori ematen zaie-larik.

Abokatu hauek Koroaren, Erreginaren, bermea izanik, kasurik garrantzizkoenak eramaten dituzte, lana asko gutxitzen zaie –benetan garrantzizkoak diren kasuak bakarrik eramango dituzte– eta ikaragarriko ordainsariak eskuratzen dituzte. Gainera, aurrerago ikusiko dugunez, maila gorena adierazten duten abokatu hauen artetik aukeratzten dira *High Court*-eko epaileak.

Egun, Ingalaterra eta Galesen 640 *Queen's Counsel* inguru daude30.

23. Espezializazio honen arabera, zuzenbidearen arlo edo gai berdinak lantzen dituzten *barrister*-ek *Set of Chambers*-ak sortzen dituzte. Bulego hauetan hamar-hamabost bat *barrister* biltzen dira, baina banatzen dutena abokatu-langela da, ez lana eta honen ondorioz lorturiko irabaziak; izan ere, *barrister* bakoitzak bere kasuak pertsonalki (*intuitu personae*) eraman behar baititu. Abokatu mota hauek debekatuta daukate lan elkarteak sortzea; honela dio *General Council of the Bar*-ek 1988an egindako eta argitaraturiko *A career at the Bar* dokumentuak 2. orrialdean: "The Bar is an intensely individual profession" (euskaraz, abokatutza zeharo banakako ogibidea da). *Set of Chambers* hauek eragin handia daukate beraien *Inn of Court*-ean.
24. FRISON D.ek *Introduction au droit anglais et aux institutions britanniques*, Paris: Ellipse, 2000; 131. orrialdean erabilitako konparazioa.
25. Espainiar abokatu eta prokuradoreen egoeraren parekoa baldin bada ere –abokatuek beraien minutak jartzeko askatasuna duten bitartean, prokuradoreek beraien elkargoak jarritako arauak errespetatu behar dituzte–, ez ditugu horregatik gure inguruneko abokatuak *barrister*-ekin eta prokuradoreak *solicitor*-ekin identifikatu behar.
26. Zentzu honetan, ikus JOLOWICZ, J.A. *On civil procedure*, Cambridge: Cambridge University Press, 2000; 32. or. eta hur. *Barrister* batek bezero bat gorengo epailean aurrean ordezkatzeko badu eta *solicitor* batek horrela eskatu gabe egiten badu, elkargotik eta ogibidetik kanporatzeko arriskua dauka. Honekin bilatzen dena *barrister*-en inpartzialtasuna eta zuzenbidearen praktikarik egokiena da; *barrister*-a ez da bere bezeroen sentimenduengatik hunkituta gelditzen, beti ere egia eta justiziaren zerbitzari leiala izanez. Hau horrela izanda, mota honetako abokatuek epaileen konfiantza osoa daukate.
27. Hau egun horrela bada ere, pixkanaka-pixkanaka aldatzen doa. 1990eko *Courts and Legal Service Act*-az geroztik, Lege honi jarraituz epaile banaka batzuk *solicitor*-en artetik aukeratzeko aukera aintzatesten da.
28. *Silks* (euskaraz, zeta) ere deitzen zaie, zetazko toga ederrak jazten dituztelako. *Barrister*-en artean, *Queen's Counsel*-ak ez direnei, *barrister* bezala lan egiten duten lehen hamar urteetan, *Junior Counsel* deitzen zaie.
29. *Lord Chancellor*-a britaniar agintari judicial gorena, Lorden Ganberako lehendakaria eta bozeramailea, Ministroen Kontseiluko partaidea –beraz, gobernukidea– eta lege arazoetan Gobernuaren aholkularia da. Gainera, epai boterearen antolakuntzaren arduraduna da. Honi buruz datu gehiago, ikus 65. oharra.
30. FRISON D. *Introduction au droit anglais et aux institutions britanniques*, 9. argitaralpena, Paris: Ellipse, 2000; 140. or.

Puntu honekin bukatzeko, azken ohar garrantzitsu bat egin behar dugu: *barrister* eta *solicitor*-en arteko desberdintasuna egun oraindik oso nabarmena da Ingalaterra eta Galesen, nahiz eta azkenengo urteetan, batez ere 1990ean parlamentuak eman zuen *Courts and Legal Services Act* legeaz geroztik, abokatu mota bien arteko desberdintasunak gutxitzeko asmoa ikusten den; besteak beste, lege honek *solicitor*-ei gorengo epaileen aurrean aritzeko eskubidea (*right of audience*) aintzatesten die, eta epaileak *solicitor*-en artean aukeratzeko aukera arautzen du<sup>31</sup>.

Aipatutako 1990eko *Courts and Legal Services Act*-ak dioenez, *right of audience* hori, epaileen aurrean aritzeko eskubidea, *The General Council of the Bar* eta *Law Society*-ak eman edo baimendu behar dute, izan ere hauek bai dira horretarako gaitasuna dutenak ("*authorized body*"). Praktikan, elkargo bakoitzak bere kideen interesak defenditzen ditu, eta lehenengoak *barrister*-en interesak eta ahalmenak defenditzeko *solicitor*-enak dauden moduan uzteagatik borrokatu du. Honen aurrean, *Law Society*-ak ezer egiteko loturik ditu eskuak.

Horrela, egun oraindik *barrister* eta *solicitor*-en arteko desberdintasunek gori-gorian diraude, lehenengoek lege munduko oligarkia osatzen duten bitartean bigarrenek honen ondoriozko diskriminazioa jasan behar dutelarik<sup>32</sup>.

### 3. Ingalaterrako eta Galesko epai organo desberdinetara sarrera

#### 3.1. Epai organoen antolaketa orokorra

Ingalaterra eta Galesen, gure inguruan gertatzen den bezala, prozesu zibila eta penala dira garrantzitsuenak. Hau horrela izanda, eta irizpide nagusi bezala, epaitegi eta auzitegien artean arazo zibilez eta penalez ezagutzen dutenen artean desberdin genezake. Espainiar Estatuan gertatzen den bezala, bi motetako arazoez ezagutzen duten epai organoak badaude ere, beste batzuek mota batekoak edo bestekoak direnak soilik ezagutzen dituzte. Hauez gain, badituzte lan auzitegiak (*Industrial Tribunals*) eta beste auzitegi berezi batzuk ere (*Restrictive Practices Court*...).

Ingalaterrako epaileen egituraren lehenengo instantzian *Magistrates Courts* eta *County Courts*-ak aipatu behar ditugu. Biztanleria ingelesak hauetara joko du gehienetan. Hauen gainetik *High Court of Justice* delakoa dago –honen barnean, zigor arloan garrantzi handia daukan *Crown Court*-ari aipamen berezia egin beharko diogu–.

*Court of Appeal* da apelazio edo gora jotze organoa, eta azken instantzian *House of Lords* (Lorden Ganbera) dago.

Jarraian, organo hauek banaka aztertuko ditugu: zuzenbidearen zein arlotan aritzen diren (zibila, penala) eta beraien eskuduntzak oro har aipatu ondoren, bakoitzaren konposaketa edo osaketa aztertuko dugu, betiere beraiak osatzen dituzten epaileen jatorrian indar eginez.

#### 3.2. Magistrates Courts

*MAGISTRATES COURTS* deritzen lehen instantziako auzitegiak, oro har<sup>33</sup>, *Justices of the peace* deritzenek osatzen dituzte. Hauek gure inguruko bake-epaileak lirake, eta gure inguruan gertatzen den bezala, ez dute zertan legetan adituak izan behar<sup>34</sup>. Badute hala ere gure inguruko bake-epaileengandik alderazten dituen ezaugarri nagusi bat: ez dute soldatarik, bolondresak dira, kobratzen dutena sinbolikoa da, baina Ingalaterran eta Galesen lan honek, karguak, gizarte mailan ematen duen izen ona handia da, zalantzarik gabe, gure lurraldean ematen duena baino handiagoa<sup>35</sup>. Gainera, lana ez da jarraia –urtean gutxienez 26 egunez arituko dira–.

Nola sartzten dira epaile hauek auzitegitan? Bake-epaile hauek 1997ko *Justices of the peace Act*, parlamentuko legeak bere 5. artikuluan dioenez, *Lord Chancellor*-ak aukeratu eta izendatzen ditu Erreginaren izenean, udal batzordeak (*local advisory committees*) egiten dituzten zerrenda batzuetatik<sup>36</sup>.

Epaile hauek 30-50 urte bitartekoak izaten dira, ospe oneko jendea, herriaren errespetuaren jabeak. Horrela, beraiak aukeratzekoan biztanleria osoa ordezkatzeko dituzten pertsonak bilatzen

31. Aurrerago aztertuko dugunez, egun praktikan *solicitor*-entzat bakarrik behe mailako epaile postuak gordetzen dira: *circuit judge*, *distrit judge*, *recorder*, *stipendiary magistrate* eta *clerk to the justices* –denak dira behe mailako epaile karguak, azkenengoa izan ezik, hau epaile laguntzailea baita–.

32. GIFFORD, T. *Where is the justice?*, London: Penguin, 1986; 67. or. eta hur.

33. Oro har esaten dugu, berehala aztertuko dugunez *Stipendiary Magistrates* eta *Ex-officio Magistrates* direlakoak ere badaudelako.

34. Legetan adituak ez direnez, *Clerk* deritzen abokatuak laguntza dute. Hauek kontratupean lantsaio osoa eta ordaindua dute. Postu hau betetzeko, "5 urteko *Magistrates Courts qualification*" (hau da, 5 urtetan aipatutako auzitegi honen aurrean aritzeko eskubidea, *right of audience* delakoa) dutenen artean aukeratu da. Beraz, behe mailako epaileen aurrean *solicitor*-ak zein *barrister*-ak aritu daitezkeenez, hauen artean aukeratu da laguntzaileak. Izendapena *Lord Chancellor*-ak egingo du, 1997ko *Justices of the Peace Act*-en 42. atalarekin bat.

Laguntzaile hauek *Justices of the Peace*-ei lege eta prozedura arazoetan aholkua emango diete.

35. ZWEIGERT, K. eta KÖTZ, H.k. (*An introduction to comparative law*, 2. edizioa, London: Oxford University Press, 1993; 213. or.) diotenez, "bake-epaile izatea eta norberaren izenaren atzetik JP (*Justice of the Peace*, Bakezko Epaille) hizkiak jartzea ohore bat da".

36. Egun 95 batzorde dira, 1.600 partaide inguru dituztelarik.



saiatzen dira, ideia politikoak, gizarte maila eta sexuari dagokionez batez ere. Ezin dira poliziak eta parlamentariak aukeratu.

Lan honen ezaugarri nagusiak, doanezkoa dela eta jarraia ez dela kontuan izanik, erraz uler-tzen da batez ere ogibide liberaleko jendea eta etxeoandreak izatea lehen mailako epai organo hauek osatzen dituztenak.

Izendatuak izan eta gero, ikastaro batzuk egiten dituzte (*course of training*), hauetan zuzen-bidearen oinarriak ikasten dituzte eta auzi batzuen jarraipena egiten dute.

Izendapena auzitegi jakin baterako edo batzuetarako eta finkoa izaten da; horrela, nor-malean behe mailako epaile hauek ez dituzte jatorrian izendatu dituzten epai-organotik beste batzuetara mugitzen. Hala ere, posible da beraien kargutik kentzea, baztertzea (*remove*). Hori egiteko ahalmena *Lord Chancellor*-ak baka-rrik dauka, portaera txarra edo ezgaitasuna ema-ten direnean.

Erretiratzeko adina, orokorrean, 70 urte da (*Lord Chancellor*-aren onespenearekin 72), 65 adingabeen auzitegietan aritzen direnentzako<sup>37</sup>. Erretiratu eta gero, ordezkapen zerrenda (*supple-mental list*) batean jartzen dira, eta epaitegieta lan asko dagoenean edo eta bestelako adminis-trazio lanetarako deitzen dituzte.

London eta bestelako populazio ugari- duntan, delitu tasa handia eta gatazkak korapilatsuagoak izanik, XVIII. mendeaz geroztik behe mailako epaile berezi batzuk aritzen dira: *Stipendary Magistrates*. Hauek legeetan adituak, lansaio osoa eta ordaindua dute eta erabakiak hartzeko bakarka aritzen dira.

Aipatutako azken hauek, 1990eko *Courts and Legal Services Act*-en 71. atalak arautzen duenez, *Lord Chancellor*-ak aukeratu eta Erreginak izendatuko ditu *Magistrate Courts*, *County Court* edo eta *Supreme Court*-en aurrean 7 urteko gaitasuna, prestakuntza orokorra (*general qualification*) dutenen artean. Nor dauka gaitasun edo prestakuntza orokor hori? 7 urtetan aipatutako auzitegien aurrean aritzeko eskubidea (*right of audience*) dutenek<sup>38</sup>.

Magistratu arruntak eta aipatutako *Stipendary Magistrates* horiez gain, *Ex-officio Magistrates*-ak aipatu behar ditugu: zenbait per-sona (alkatea, zinegotziak...), betetzen duten kar-gua dela eta (alkatetza, zinegotziko...), behe mailako epaile izan daitezke.

Auzitegi hauek batez ere zigor arloan (arazo arinak, trafiko gatazkak, umeek pairatuta-koak...) eskudunak badira ere, zibil arloko arazoez ere ezagutzen dute (batez ere familia, erantzuki-zun zibila...). Kasuak ezagutzeko 2 eta 7 epaile bitartean aritzen dira.

Egun, mota honetako 800 auzitegi eta 30.000 magistratu inguru daude Ingalaterra eta Gales osotik banatuta<sup>39</sup>.

### 3.3. County Courts

*COUNTY COURTS*<sup>40</sup> direlakoak 1846an ezarri zituen *County Courts Act* Legeak, diru kan-titate txikiko arazo zibilak ezagutzeko. Zibil arloan bakarrik aritzen diren lehen instantziako auzite-giak dira.

Beraien egungo araudi nagusia 1984ko *County Courts Act*-ean egonik, hauen antolaketa-rako Ingalaterra eta Gales barruti desberdinetan zatitzen dira<sup>41</sup>. Barruti hauek *county court district* deitzen dira, hauetariko bakoitzak beren lurraldea-ren esparruan gertatzen diren ekintzen gaineko eskumena dutelarik. Barruti hauek, aldiz, *circuits*-etan batzen dira.

Horrela, *County Court* hauetan bi motatako epaileak aritzen dira: *Circuit Judges*, gehienak, eta *District Judges*, gutxienak.

*Circuit Judge*-ak betidanik *County Court*-ez arduratu izan diren epaileak dira. Beren izenak adierazten duenez, epai mugikorak dira, beraien *circuit*-a osatzen duten auzitegi desberdinetatik ibiltzen direlarik.

Epaile hauek lansaio osoa lan egiten dute eta *County Court*-etan aritzeaz aparte, beraz, zibil arloko arazoez aparte, zigor arlokoak ezagutzen dituzte, geroago aztertuko dugun *Crown Court*-ean aritzen direnean<sup>42</sup>.

37. Adin txikiko auzitegiek adingabeok buruturiko delituak ezagutzen dituzte. Hiru epaile aritzen dira batera. Emakumezko epaile asko egoten dira auzi-tegi hauetan.

38. Horrela, eta esandakoaren ondorioz, *barrister*-ak zein *solicitor*-ak izan daitezke magistratu –betiere “magistratu” hitza gure ingurunean erabiltzen den zentzutik at ulerturik, behe mailako epaileak izendatzeko erabilia–.

39. FRISON D. *Introduction au droit anglais et aux institutions britanniques*, Paris: Ellipse, 2000; 94. eta 98. orr.

Magistratu kopurua oso handia izanik, eta hauek lan handia eginez, batez ere zigor arloan, errazago ulertzen da Ingalaterra eta Galesen dagoen epaile –ikasiak, esan nahi dugu– kopuru txikia.

40. *County* ingeles hitzak euskaraz Konterrri esan nahi badu ere, hauek ez dira konterrietako auzitegiak.

41. *Lord Chancellor*-ak ezartzen ditu barrutiak.

42. *Crown Court*-ean honen *Third-tier centre*-an aritzen dira, bertako epaileei –ikusiko dugunez, *Recorder* eta *Hight Court*-eko epaileei– lan zama gutxitzeko.

Azken hau da Ingalaterra eta Galesko epailegoaren ezaugarri nagusienetarikoa bat: bertako epaile batzuk organo bat baino gehiagotan aritzen dira. Honen adibide gehiago ikusiko ditugu.

Epaile hauek, 1990eko *Courts and Legal Services Act*-aren 71. atalak dioenez, gutxienez *Crown Court* edo *County Court*-en aurrean 10 urtetako esperientzia duten abokatuen artean aukeratuak<sup>43</sup>, Erreginak izendatuko ditu, *Lord Chancellor*-aren proposamenarekin.

Mota honetako epaileek egiten duten lana oso gogorra da, izan ere arlo zibilean ematen diren arazo gehienak ezagutzen baitituzte.

72 urterekin jubilatzen dira, eta goi-mailako epaileak ez direnez, *Lord Chancellor*-ak baztertu (*remove*) ditzake ezgai direlako edo jokaera txarra izanagatik.

*District Judges* direlakoak, aipatu bezalaxe, 1990eko *Courts and Legal Services Act* legeak sortu zituen, antzinako *Registrar*, *Circuit Judges*-ei laguntzen ibiltzen ziren abokatuen ordez. Hauek batez ere *Circuit Judge*-i laguntzen aritzen dira, baina aipatutako Legearen 74. artikulua, kasu batzuetan, *County Court*-etan epai lanetan aritzeko boterea aintzatesten die<sup>44</sup>. Administrazio lanak ere egiten dituzte.

1990eko *Courts and Legal Services Act*-aren arabera, epaile hauek *County Courts* edo *Magistrate Courts*-en aurrean aritzeko 7 urteko gaitasuna edo esperientzia (*right of audience*) duten abokatuen artean aukeratu dira.

Honela, *County Court* bakoitzean gutxienez mota bakoitzeko epaile bat arituko da, *Circuit Judge*-a lehendakaria izanik<sup>45</sup>. Azken honek erabakiko du auzia, *District Judges*-aren laguntza eta aholkuarekin.

Auzitegi hauek, jadanik aipatu dugun bezalaxe, ez dute zigor arloan eskuduntzarik, zibil arloan ematen diren kasuak besterik ez dituztelarik ezagutzen. Familia arloan, eta zehazkiago dibortzioaz, hau bi ezkontideen adostasunaz burutzen denean bakarrik ezagutuko dute. Adostasunik ez dagoenean, *High Court*-ak ezagutuko du.

Honela, auzitegi hauek, kasuan kasu, batzuetan gehiago, besteetan gutxiago, 25.000 libera esterlinarainoko kopuruan baloratutako auziak ezagutuko dituzte<sup>46</sup>. Auzia *equity*-aren bidez (ekitate), zuzenbide ingelesaren iturri hau erabiliz, konpondu behar bada, kopurua 30.000 liberataraino igotzen da.

Auzitegi hauek konpontzen dituzte arlo zibilean ematen diren arazorik gehienak: testamentu arazoak (*probates*), porrotak (*bankruptcies*), kontratuz kanpoko erantzukizun zibila (*tort law*), hipotekak (*mortgages*)...<sup>47</sup>

Egun, mota honetako 400 auzitegi inguru daude Ingalaterra eta Gales guztian barna, eta zalantza gabe zibil arloan epai-organorik garrantzitsuenak dira –lehen instantzian, eta askotan bakarrean, ematen diren auzi zibilen %75 ezagutzen dute<sup>48</sup>–.

### 3.4. Supreme Court of Judicature of England and Wales

Aipatutako bi auzitegien gainetik, SUPREME COURT OF JUDICATURE OF ENGLAND AND WALES dago. Honen barnean hiru atal desberdin ditzakegu: *Crown Court*, *High Court of Justice* eta *Court of Appeal*<sup>49</sup>.

#### 3.4.1. Crown Court

1971an *Courts Act*-en bidez sortua, 1981eko *Supreme Court Act* legearen 78. artikulua arabera, *High Court*-aren parte edo atal bat da.

Auzitegi honek lehen instantzian zigor arazo larriak –*Magistrates Court*-ek ezagutzen ez dituztenak– eta *Magistrates Courts*-ek ezagutu dituzten arazo arinen aurkako helegiteak ezagutzen ditu.

Normalean epaile bakar bat zinpeko (*jury*) batekin arituko da salaketa formal (*indictment*) bat jaso duen salatu (*accused*) baten errunduntasuna edo errugabetasuna erabakitzen.

*Crown Court* honek Londresen eta bertatik kanpo, probintzietan, gertatzen diren zigor auziak ezagutzen ditu. Horretarako, nahiz eta

43. Auzitegi hauen aurrean aritzeko eskubidea (*right of audience*) duten *barrister* eta *solicitor*-en artean aukeratu dira.

Epaile hauek baita ere hiru urteko esperientzia duten *Recorder* –geroago aztertuko dugun epaile mota bat– *District Judges*, edo *Stipendiary Magistrates*-en artean aukera daitezke.

44. 5.000 libera baino gutxiagoko kasuetan.

45. Lan asko duten auzitegietan, *Lord Chancellor*-ak nahi izanez gero, mota honetako epaile bat baino gehiago, beharizanen arabera, izenda ditzake.

46. Demandatua ados egonez gero, eta auzia erantzukizun zibilaren arlokoa bada, edo kontratuen ez-betetzean oinarritzen bada, kopuru nagusiagoko auziak ere ezagutuko dituzte.

47. Ikus auzitegi honen eskumenekoak diren gai edo arazo guztiak KEENAN, D.en *Smith and Keenan's English Law*, 12. argitalpena, London: Financial Times Pitman Publishing, 1998; 29-32 orr.

48. JACOB, I.H. *The fabric of english civil justice*, London: Stevens and Son, 1987; 36. eta 37. orr.

49. Zentzu honetan ikus PLANT, C.en *Blacstones Civil practice 2000*, London: Blacstone Press, 2000, 18. or.



auzitegi bakar bat izan, egitura desberdinetan antolatzen da.

Horrela, Londresen *The Central Criminal Court* delakoak –baita *Old Bailey* bezala, kokatzen den kalearen izenaz, ezagutua– hirian eta honen inguruan (*The Greater London Area*) sorturiko delituak ezagutzen ditu. Honetan, jarraian aztertuko ditugun eta probintzietan aritzen diren epaile motez gain, alkatea eta zinegotziak ere aritzen dira epaile lanetan.

Hiriburutik kanpo, 90 bat zentru dituzte 6 zirkuitutan (*circuits*) antolatutik. Zirkuito hauetariko bakoitzerako *High Court*-eko bi epaile izendatuko dira. Hauek zirkuitoaren antolaketa orokorraz arduratuko dira. Hauetaz at, beste bi motako epaileak arituko dira *Crown Court*-ean: *Circuit judges*-ak eta *Recorder*-ak.

Aipatutako zentru hauek 3 maila edo kategoriatan banatzen dituzte: lehen mailakoak (*first-tier centres*), bigarren mailakoak (*second-tier centres*) eta hirugarren mailakoak (*third-tier centres*). Maila bakoitzean delitu jakin batzuk ezagutzen dira –larrienak lehen mailakoetan eta arinenak hirugarren mailakoetan–, eta bakoitzean epaile desberdinak arituko dira<sup>50</sup>.

Lehen mailakoetan zigor arloko arazo larrienak ezagutzen dira (hala nola, zigor gogorrenak dituztenak: traizioa, terrorismoa, erailketa, genozidioa...). Hauetan *High Court*-eko epaileak arituko dira<sup>51</sup>.

Bigarren mailako zentruetan, nahi gabeko erailketak (*manslaughter*), infantizidioa (*infanticide*), bortxaketa (*rape*)... ezagutuko dira. Hauetan *High Court*-eko epaileak aritzen dira, baina *Circuit judge*-etan delega dezakete.

Hirugarren mailako zentruetan bestelako delituak (erailketa saialdia, lapurketa indarrarekin...) ezagutzen dira. Auzi hauek *High Court*-eko epaileek, *Circuit judges* edo *Recorder*-ek ezagutuko dituzte.

*Recorder*-ek ez dute lansaio osoa egiten. Denboraldi baterako kontratatzen dituzte, eta urtean gutxienez 20 egunez aritzen dira epai-lanetan.

Gutxienez 10 urteko esperientzia duten *barrister* eta *solicitor*-en artean aukeratzen dira. *Lord Chancellor*-ak izendatzen ditu, eta jokaera txarragatik (*misbehaviour*), ezgaitasunagatik (*incapacity*) edo beren betebeharrak ez betetzea-

gatik (*failed to comply with their obligations*) kargutik bazter ditzake.

### 3.4.2. High Court

*The Supreme Court of Judicature Act* Legearen bidez, 1873an sortua eta Londonen kokatua –*Royal Courts of Justice* deritzon eraikinean–, auzitegi hau bakarra da, eta bere jurisdikzioa Ingalaterra eta Gales osora hedatzen da.

Nahiz eta bakarra izan, eta bere egoitza nagusia Londonen izan, probintzietan 30 zentru inguru dituzte (aipatutako *Crown Court*-aren lehen mailako zentruak). Gainera, Ingalaterra eta Galesko lurralde guztitik banatuta *District Registries* deritzen beste bulego batzuk dituzte, azken hauek batez ere idatziak jaso eta emateko erabiltzen direlarik.

Bere epaileak, *puisne judges* izenarekin ezagutuak (benetako izena *Justices of the High Court* da), 98 dira egun, 10 urtetan *High Court*-aren aurrean aritzeko gaitasuna (*right of audience*) duten abokatuen artean aukeratuak. Horrela, praktikan, auzitegi honetako epaileak *Queen's Counsel* (Q.C) maila duten *barrister*-en artean aukeratzen dira<sup>52</sup>. *Lord Chancellor*-ak proposatu eta Erreginak izendatzen ditu. Izendapen honekin, biziarteko noblezia titulu bat ematen zaie. Postua ere bizitza guztirako da<sup>53</sup>. “*My Lord*” edo “*My Lady*” tratua ematen zaie, eta, goi mailako epaileak izanik, ezin dira beraien kargutik kendu edo baztertu (*irremovable*).

Epaile hauek *Master* (euskaraz, maisu, irakasle) deritzen, legetan adituak eta esperientzia handidunak diren *barrister* eta *solicitor*-en laguntza dute –10 urteko esperientzia eskatzen da postu honetarako–. Hauen papera oso garrantzitsua da, ez bakarrik epaileei eta alderdi edo partei ematen dizkieten aholkuengatik, baizik eta, are gehiago, arazoak epaiketa bukaera baino arinago konpontzeko egiten duten lanagatik, edo kasuak epaitegi honetan edo beheagokoetan –batez ere, *County Court*-etan– ezagutu behar diren erabakitzeko duten gaitasunagatik.

Auzitegi honek ez dauka inolako mugarik jurisdikzio zibilean, eta gainera gora jotze funtzio garrantzitsua du, bai zigor arloan bai zibil arloan.

Auzitegi honek 3 atal edo sekzio ditu, bakoitza gai jakin batzuetan espezialituta dagoelarik: *Queen's Bench Division*, *Chancery Division* eta *Family Division*<sup>54</sup>. Gainera, hirurek, beren bar-

50. Auzitegi honek ezagutzen dituen delituen zerrenda osoa ikus KINDER-GEST, P. *Droit Anglais: institutions politiques et judiciaires*, 2. argitalpena, Paris: Librairie Générale de droit et de jurisprudence, 1993; 351. or.

51. Epaile hauen epailegora sarrera, *High Court*-a aztertzen dugunean aztertuko dugu.

52. Bi urteko *Circuit Judge* esperientzia dutenen artean aukera daitezke (1990eko *Courts and Legal Services Act*-aren 71. artikulua arabera)

53. 75 urterekin erretiratzen dira epaile lanetatik.

54. 1981eko *Supreme Court Act*-ak ezartzen ditu hiru hauetariko bakoitzaren eskuduntzak.

nean, batez ere helegiteez arduratzen den *Divisional Court* bat dute (*Divisional Court of Queen's Bench*, *Divisional Court of the Chancery Division* eta *Divisional Court of the Family Division*).

Hauek banaka aztertu baino arinago, argi eta garbi utzi behar da auzitegi honek, nahiz eta auzitegi gorenak (*High Court*) bezala ezagutu, gai asko lehenengo instantzian ezagutzen dituela, bere jurisdikzioa Ingalaterra eta Galesko lurralde osora hedatzen delarik. Honela, nahiz eta *High Court* honek beharagoko epai organoen aurkako erabakien helegiteak ere ezagutu, ingeles Ordenamendu Juridikoaren berezko gora jotze organoa beranduago aztertuko dugun *Court of Appeal* da<sup>55</sup>.

*QUEEN'S BENCH DIVISION*, Erreginaren sala ere deitua, antzinako *Common Law*-ko epaimahaien oinordekoa, *High Court*-eko atalik garrantzitsuena da, eta bere barnean beste auzitegi edo *court* batzuk hartzen ditu, denen artean aipagarrienak *Admiralty Court*—itsasontzi eta hegazkinen inguruan sorturiko arazo juridikoen arduratzen da— eta *Commercial Court*—1895ean sortua, aldaketa ugari pairatu ondoren, gaur egun arbitraiaren aplikazioa da bere ezaugarri nagusia— dira, biek merkataritza arloko auziak ezagutzen dituztelarik<sup>56</sup>.

Atal hau beste organo batzuei espreski ez dagozkien akzio zibilez (batez ere kontratuak, erantzunkizun zibila,...) eta beharagoko auzitegi batzuen erabakien gora jotze edo apelazioaz arduratuko da (*Magistrates courts*, *County Courts*).

Ez du arazoen ezagutzarako hauen zenbatekoari dagokionez mugarik; hala ere, arazo baten balioa, berak ezagutzeko gauza txikitat hartzen badu, *County Court* bati bidal diezaioke<sup>57</sup>.

Zigor arloan ere ezagutuko du (*habeas corpus*-aren inguruko arazoak, beharagoko organoen kontrako helegiteak...).

Atal honetan 65 epailek eta *Lord Chief Justice* lehendakariak dihardute. Jadanik aipatu

dugunez, epaile hauek 30 inguru, baita probintzietatik ere, *Crown Court*-ean aritzen dira. Gainera, epaile hauek jarraian aztertuko dugun *Appeal Court*-aren *Criminal Division*-ean ere aritzen dira<sup>58</sup>.

*CHANCERY DIVISION* deritzon atalak bere barne merkataritza arloko bi auzitegi ditu, *Company Court* (merkataritza sozietateez arduratzen dena) eta *Patents Court* (1977an sortua, patenteen inguruko arazoez arduratzen dena).

Merkataritza arazoez gain, garrantzi handiko zibil arloko (10.000 libera baino gehiagoko oinordetzak, hipotekak, lur banaketak...) ere arduratzen da. Gainera, *equity* delako zuzenbide ingelesaren iturri bereziaren aplikaziotik eratorriko kaso oro ezagutzen du<sup>59</sup>. Ez du zigor arazoez ezagutzen.

Sekzio edo atal hau arinagokoa baino txikiagoa da, eta 17 epailek osatzen dute. *Lord Chancellor*-a ordezkatzeko duen *Vice Chancellor*-a da beraien lehendakaria<sup>60</sup>.

*FAMILY DIVISION*<sup>61</sup> delako hirugarren atalean, *President of the family Division* deritzon lehendakari baten gidapean 16 epaile daude.

Bere izenetik ondoriozta genezakeen moduan, familia arazoez arduratzen da: lehen instantzian adostasunik gabeko dibortzioez (*defended divorces*), tutoretzez (*wardship*), adopzioez (*adoption*)... arduratzen da. Oinordetza arazoak ere ezagutzen ditu<sup>62</sup>.

Gainera, *Magistrate Courts*-ek eta *County Court*-ek familia alorreko gaietan ematen dituzten erabakiak gora jotzean edo apelazioan ezagutuko dituzte —azken hauek bi epailek ezagutuko dituzte *Family Divisional Court* delakoan—.

### 3.4.3. Court of Appeal

*COURT OF APPEAL* edo gora jotze auzitegia, Londoneko *Royal Courts of Justice* eraikinean kokaturik dago.

55. Zentzu honetan, DAVID, R. en *Los grandes sistemas jurídicos contemporáneos*, 2. argitalpena, Paris: Tolle Lege Aguilar, 1970; 286. orrialdean dioenez: "Ingeles Auzitegi Gorenak bi maila ditu: *High Court of Justice* eta *Court of Appeal*". Gainera, *High Court*-aren lehen instantziako organoaren izaera hori argi eta garbi ikusten da bere funtzionamenduan: apelazioak ez diren kasuetan, epailek banaka aritzen dira.

Hala ere, kritika handiak daude ingeles lege gizon eta emakumeen artean, lehen instantziako bi organo (*High Court* eta *County Court*-ak) daudelako, izan ere askotan beraien eskuduntzak ez baitira argi gelditzen.

56. *Technology and Construction Court* delakoa ere bere barnean dago. Hau teknologia eta eraikuntzaren inguruan ematen diren arazoez arduratzen da.

57. 50.000 libera baino gutxiagoko arazoak *County Court*-era bidaltzen ditu. Honela, bi auzitegi hauen arteko eskuduntza, *County Court* eta *High Court*, zenbatekoaren arabera ezartzen da; adibidez, 50.000 liberatik beharagoko istripu arazoak *County Court*-ak aztertuko ditu, kopurua aipatutakotik gorakoa bada *High Court*-ak... Honela baieztatzen du ANDREWS N.K., *Principles of civil procedure*, London: Sweet and Maxwell, 1994; 69. orrialdean.

58. Hemen berriro ikusten dugu jada aipatutako ingeles epai antolaketaaren ezaugarri nagusienetarikoa bat: epailek organo bat baino gehiagotan aritzen dira. Honek zer suposatzen du? Espainiar Estatuan baino epaile asko gutxiago egotea, eta, horrela, epailegoa talde itxiago bat bihurtzea.

59. Ikus aztertzen dituen gai guztien zerrenda PLANT, C. en *Blacstone's civil practice 2000*, London: Blacstone Press, 2000; 92. orrialdean.

60. *Vice-Chancellor* hau *Lord Chancellor*-ak izendatuko du, *Lord Justices of Appeal* (apelazio organoko epaileak) izan daitezkeen artean. Epaile mota hau berehala aztertuko dugu.

61. 1970era arte *Probate, Divorce and Admiralty Division* (testamentuen legalizazioa, dibortzioa eta almirantego saila) deitua.

62. Aztertzen dituen kasuen zerrenda ikus BAILEY, S.H. eta GUNN, M.J.-ren *Smith and Bailey on the Modern English Legal System*, 3. argitalpena, London: Sweet and Maxwell, 1996; 91. orrialdean.

1981eko *Supreme Court Act* Legearen arabera, bere kide, *ex-officio*, honako hauek dira: *Lord Chancellor* (baita Lorden Ganberako lehendakaria, Justizia Ministroa eta *High Court*-eko Chancery Divisioneko lehendakaria dena), *Master of the Rolls* (*Lord Chancellor*-a ordezkatzuz *Court of Appeal* honetako lehendakaria), *Lord Chief Justice* (baita *High Court*-eko *Queen's Bench Division*-eko lehendakaria dena), *High Court*-eko *Familia Division*-eko lehendakaria, *Vice Chancellor*-a (*Lord Chancellor*-a *High Court*-eko Chancery Division-ean ordezkatzeko duena), *Lord Chancellor* izandakoak, eta *The House of Lords*-en aritzen diren *Lords of Appeal in Ordinary*.

Hauetatik guztietatik, normalean *Master of the Rolls*-a<sup>63</sup> eta *Lord Chief Justice*-a bakarrik aritzen dira epai-lanetan. Izan ere, bi hauek auzitegi honek dituen bi sailletako lehendakariak dira: lehenegoa zibil arlokoa (*Civil Division*) eta bigarrena zigor arlokoa<sup>64</sup> (*Criminal Division*).

Aurrekoez aparte, eta auzitegi honetako epaile bereziak bezala, *Lord Justices of Appeal* izenaz ezagutzen diren 35 bat epaile daude, arlo zibilean zein penalean aritu daitezkeenak. Epaile hauek, 1990eko *Courts and Legal Services Act*-en 71. artikulua arabera, *High Court*-eko epaileen artetik edo *High Court*-aren aurrean aritzeko 10 urteko gaitasuna duten abokatuen artetik aukeratu dira. Praktikan hemengo epaile gehienak *Queen's Counsel*-en artetik aukeratu dira. Erreginak izendatzen ditu Lehen Ministroaren proposamenez –honek, proposamena egiteko, Justizia arduraduna den *Lord Chancellor*-aren aholkua izaten du–.

Epaile hauek 75 urterekin erretiratu dira, eta ezin dira bere kargutik kendu edo baztertu.

Aipatutako *Lord Justices of Appeal* hauetatik gain, eta auzitegi honek duen lan zama handia bada, *Lord Chancellor*-ak *High Court*-eko epaile

batzuk izenda ditzake apelazio auzitegi honetan aritzeko –praktikan batez ere zigor arloan aritzeko deitzen ditu–.

Auzitegi honetan epaileak kasu bakoitzari dagozkion zenbakian aritzen dira, gutxienez, bina edo hirunaka, eta ez dute inoiz auzi bat ezagutuko arinago beheargoko mailako beste epai-organo batek ezagutu ez badu<sup>65</sup>: beraien funtzioa beti gora jotzea aztertzea da. Honela, arlo zibilean (*Civil Division*), *High Court of Justice, County Court*, eta bestelako auzitegiek emandako sententzien kontrako errekursoak ezagutzen dituzte. Zigor arloan (*Criminal Division*), aldiz, *Crown Court*-en sententzien kontrako errekursoak ezagutzen dituzte.

Gora jotze organo honek egiten duen beheargoko mailako sententzien kontrola mugagabea da: sententzia hauetan aplikatzen den zuzenbidea eta honen interpretazioa zehatz-mehatz mihatzen dituzte. Horretan datza beraien lana. Normalean ez dituzte beheargoko organoek aztertutako gertakizunak eta frogak (*evidence*) aztertuko –zigor arloan inoiz ez–.

### 3.5. House of Lords: Apellate Committee of the House of Lords

Ingalaterra eta Galesko epaile-egituraren buru, gorengo mailan, Lorden Ganbera, *HOUSE OF LORDS*<sup>66</sup> kokatu behar dugu. Aipatu bezalaxe, organo hau ez da *Supreme Court*-aren parte.

Ganbera honetan *Apellate Committee of the House of Lords* delakoak hartzen ditu epai erabakiak. Batzorde hau, egungo *Lord Chancellor*-ak<sup>67</sup>, azken honen postuan honen aurretik egon zirenak eta epai organo honen berezko epaileak, *Lord of Appeal in Ordinary* dei-

63. Lehen Ministroak izendatzen du, betiere *Lord Chancellor*-aren aholkuarekin.

64. 1966an sortua *The Criminal Appeal Act*-aren bidez, eta arinagoko *Court of Criminal Appeal*-en ordez.

65. Gainera, eta berme garrantzitsu bezala, 1981eko *The Supreme Court Act*-en 56. atalak dioenez, epaile batek ezin izango du inoiz helegitean kasu bat ezagutu, kasu bera lehen instantzian erabaki badu. Hau Ingalaterra eta Galesko kasuan oso berme garrantzitsua da, izan ere, bertako epaile antolaketaren arabera, eta epaile kopurua oso mugatua izanik, posible da epaile bat organo desberdinetan eta maila desberdinekoetan egotea. Aipatutako bermearekin, epaile berdinak inoiz ezin izango du lehen instantzian organo batean eta helegitean goragoko beste epai organo batean kasu bera ezagutu.

66. Nahiz eta Eskoziak eta Ipar Irlandak, Ingalaterra eta Galesko epaile-antolaketarekiko desberdina den berezko antolaketa eduki, *HOUSE OF LORDS* hau lau lurraldeetako epaile-egitura desberdinen muina da –Eskoziako zigor arlokoan izan ezik–: Ingalaterra eta Galesko *Court of Appeal*-en aurkako helegiteak, Eskoziako *Court of Session* (bertako helegite organoa)-en aukakoak eta Ipar Irlandako *Court of Appeal* (zibila eta zigor arloa ezagutzen dituen helegite organoa)-en aurkako helegiteak ezagutzen ditu. Gales edo Eskoziako helegiteak ezagutzen dituenean, Lorden Ganbera honetan lurralde horietako epaileek parte hartzen dute. Beraz, zalantza gabe baieztatu genezake azken instantziako organo hau dela epaile antolaketa guztiak uzartzen dituen.

Orokorrean autore gehienek Lorden Ganbera hau organo legegile bezala definitzen badute ere, "etxe" hau hain aspaldikoa izanik –epai boterea eta botere legegilea guztiz nahastuta agertzen ziren garaian du bere jatorria–, nolabait uler daiteke egun betetzen duen epaiketa funtzioa (Ikus JENKS E. *El derecho inglés*, Madrid: Reus, 1930; 93. or.).

67. *Lord High Chancellor* deritzonak, ogibide juridikoaren gorena adierazten du. Gobernuak den heinean, Lehen Ministroak aukeratu du askatasun osoz; horregatik, honen egonkortasun politikoaren menpe dago –hau aldatzean, *Lord Chancellor*-a ere aldatuko da– eta nahi izanez gero bere postutik bazter edo ken dezake. Ahalmen legegileak (Lorden Ganbera, organo legegileko bozeramailea; Gobernuak parlamentuari aurkezten dizkion legegitearen arduraduna...) exekutiboak edo betearazleak (Gobernuko kidea, Justizia Ministroa...) eta judizialak ditu. Hau argi eta garbi botere banaketaren eta epaileen independentziaren aurka doa.

Epaifuntzioei dagokienez, epaile antolaketaren gorena da (*head of the judiciary*). Epaileak, magistratuak eta epaitegietako gainerako langileak aukeratu dira. Doako laguntza legala (*legal aid*) ematearen arduraduna, baita justiziaren antolaketaren arduradun, epai-organo ugariaren lehendakaria da (Lorden Ganbera, *Court of Appeal* eta *High Court of Justice Chancery Division*).

Honi buruz informazio gehiago interneteko [www.lcd.gov.uk](http://www.lcd.gov.uk) helbidean.

tzen diren beste 12 epailek, osatzen dute –*Law Lords* ere deituak–.

Epaile hauek Erreginak izendatzen ditu Lehen Ministroaren proposamenarekin, honek *Lord Chancellor*-aren aholkua kontuan izaten duelarik. Nortzuren artean aukeratzen dira? 1990eko *Courts and Legal Services Act*-en 71. artikulua-rekin bat, gutxienez bi urtetan *Court of Appeal*-ean *Lord Justices of Appeal* bezala aritu direnen arte-tik, edo *Supreme Court qualification* duten aboka-tuen arte-tik, hau da, *Crown Court*, *High Court* eta *Appeal Court*-en aurrean aritzeko gaitasuna dute-nen arte-tik aukeratzen dira. Normalean *Queen's Counsel*-en arte-tik aukeratzen dira.

Izendatu ondoren, noble (*peerage*) bihur-tzen dira, titulu hau biziartekoa (*life peer*) izanik. 75 urterekin erretiratzeko dira epaile lanetatik, baina adin horretatik aurrera legegile bezala jarrai dezakete; gainera, zenbait epai organotarako ere deituak izan daitezke (*Court of Appeal*, *Appellate Committee of the House of Lords*...).

Epaile hauek botere legegileko (*House of Lords*) partaide izanik, beraien neutralitate politi-koa gordetzeko ezin dute Lorden Ganberako jar-duera legegilean parte hartu, arazo juridikoak eztabaidatzen direnean izan ezik.

Normalean hiruak aritzen dira: hauetariko bakoitzak arazo edo gaiari buruz bere iritzia ematen du (*speech*), eta helegitea ez da onartzen epaileen gehiengo bat ez badator.

Batzorde honek normalean *Court of Appeal*-ek zibil eta zigor arloan emandako senten-tzien aurkako errekursoak ezagutzen ditu, batzuetan baita *High Court*-ak emandakoen kon-trakoak, betiere Lorden Ganbera honetara helegi-tea aurkezteko aurretiaz *Court of Appeal*-ek edo Lorden Ganberak berak horretarako baimena eman behar dutelarik (*leave* delakoa)<sup>68</sup>.

Aipatutako *Appellate Committee of the House of Lords* honetaz gain, Parlamentuak emandako legeen (*act*) ondorioz sortutako kalteak aztertzen dituen beste batzorde bat, *Judicial Committee of the Privy Council*, aipatu behar dugu.

1833an sortua, batzorde honek, gainera, *Commonwealth*-eko lurralde batzuek –gaur egun oso gutxi, Gibraltar eta Belize kasu– beraien epaitegi gorenaren erabakien aurka ezarritako errekursoak ezagutu ditzake. Hala ere, egun oso kasu gutxi eza-

gutzen ditu, eta batez ere aholkularitza funtzioa du (erreginari, *commonwealth*-eko beste lurraldeei...).

Honen konposizioa oso zabala da, eta kasuan kasurako desberdina, beste batzuren arte-an *Lord Chancellor* eta *Lords of Appeal in Ordinary* aipa genitzakeelarik.

## 4. Ondorioak

Argi eta garbi gelditzen da Ingalaterra eta Galesen epailegora sartzeko bidea Espainiar Estatukotik desberdin samarra dela. Gure Ordenamendu Juridikoan hain garrantzitsua den oposaketa sistema ez da ematen bertan, jadanik aztertu dugunez ez baitago epaile izateko ikaske-ta edo azterketa berezirik. Epaile gehienak aboka-tuen arte-tik aukeratzen diren heinean, epaileen heziketa abokatuen berbera da, eta gure epaileen hautapen sistemaren hirugarren eta laugarren txanden antza handiagoa dauka.

Aho batez esan behar dugu aipatutako lurraldeetan inork ez duela beraien epaileen hezi-keta zalantzan jartzen; are gehiago, oso egokitzat dute. Beraien ustez, urtetan zehar abokatuek har-tzen duten legearen praktika da epaile izateko prestaketarik egokiena.

Praktikan abokatu onenak, esperientzia gehien dutenak, heltzen dira epaile izatera; hala ere, nahiz eta epaile kargua ohore handikoa izan, abokatu askok nahiago izaten dute beren betiko jarduerarekin jarraitu, batez ere honekin diru gehiago irabazten dutelako.

Ikusi dugunez, *Lord Chancellor*-ak epaileak aukeratzeko ez du izaten kontuan ideologia politi-koa, baizik eta abokatuek beren lankideen artean duten ospea, izen ona. Gainera, abokatuen artean egiten den desberdintasuna dela eta (*solicitor-barrister*), *barrister*-ak, orain arte epailegoaren itu-rri nagusi, epaileen aurrean aritzen direnean, beraien bezeroekin duten harreman zuzen eza dela eta, epailegoaren konfiantza eta errespetu osoa dute, justiziaren eta egiaren defendatzaile bihurtuz. Horrela, *barrister*-ak beraien lana dela eta epaileetatik oso hurbil egonik, beraien epaile-gora sarrera era oso natural batean eman da.

Arazo gehiago eman dira *solicitor*-en epai-legorako sarreran, baina badirudi gutxinaka-gutxi-naka, batez ere 1990eko *Courts and Legal Services Act*-etik aurrera, hauek ere pixkanaka-pixkanaka epailegora sartzeko ari direla.

68. Hala ere, Ingalaterran eta Galesen oso gutxi dira beraien kasuak gorengo organo honen aurrera eramaten dituztenak; arinago aipatu dugun bezala, kasurik gehienak lehen instantzian agortzen dira (*County Court*-etan, kasuen %70 bukatzen dira). *Court of Appeal*-era kasu gutxi heltzen badira, oraindik urriagoa da Lorden Ganberara heltzen den kasu kopurua, urtean 50 inguru. Ikus ANDREWS, N.ren *Principles of civil procedure*, London: Sweet and Maxwell, 1994; 499. or.

Lorden Ganberara helegitea aurkeztu ahal izateko baimenari, *leave* delakoari buruz, ikus KIRALFY, A.K.R.ren *The English Legal System*, 8. argitalpe-na, London: Sweet and Maxwell, 1990; 262. or.

Beste alde batetik, argi geratu da aztertutako lurraldeetan ez dagoela epaile karrerarik: kasu batzuetan goiko epai organoak betetzeko behe mailako epaileen artetik aukeratzeko aukera ematen zaio *Lord Chancellor*-ari, baina praktikan azken honek gehienetan goiko organoak abokatu bitartez osatzen ditu. Izan ere, epaileak beraiek dira goiko organoetara igo nahi izaten ez dutenak: soldata nahiko berdina eta izen ona edo ospea ere antzekoa izanik, nahiago izaten dute beren ohiko epai organoetan jadanik arras ongi ezagutzen duten lanean aritu.

Zein epaile-erreklutazio sistema da hobea, gurea ala beraiena? Artikuluan zehar aipatu ditugu ingeles erreklutazio sistemaren ezaugarriak, eta beraientzat gure erreklutazio sistema arraroa gertatzen baldin bada, guretzat beraiena are gehiago. Edozein kasutan, helburuak beti izan behar du bat eta funtsezkoa: justizia era egoki, inpartzial eta independente batean egitea. Helburu hau lortuz gero, epaileen heziketa beneran hain garrantzitsua ote?

## 5. Bibliografia<sup>69</sup>

- DAVID, R. *Los grandes sistemas jurídicos contemporáneos*, Paris: Tolle Lege Aguilar, 1968.
- GELDART, W. *Introduction to English law*, 11. argitarapena, Oxford: Oxford University Press, 1996.
- ZWEIGERT, K. eta KÖTZ, H., *An introduction to comparative law*, 2. argitalpena, Oxford: Clarendon Papers, 1993.
- GIFFORD, D. eta SALTER, J. *English legal system*, London: Cavendish Publishing limited, 1997.
- HOOD PHILIPS, O. eta HUDSON, A.H. *First book of English Law*, 8. argitalpena, London: Sweet and Maxwell, 1998.
- KINDER-GEST, P. *Droit anglais: institutions politiques et judiciaires*, 2. argitalpena, Paris: Librairie Générale de Droit et de Jurisprudence, 1994.
- JENKS, E. *El Derecho inglés*, Madril: Reus, 1930.
- FRISON, D. *Introduction au droit anglais et aux institutions britanniques*, Paris: Ellipse, 2000.
- JOLOWICZ, J.A. *On civil procedure*, Cambridge: Cambridge University Press, 2000.
- KEENAN, D. *Smith and Keenan's English Law*, 12. argitalpena, London: Financial Times Pitman Publishing, 1998.
- JACOB, I.H. *The fabric of english civil justice*, London: Stevens and Son, 1987.
- PLANT, C. *Blacstones Civil practice 2000*, London: Blacstone Press, 2000.
- ANDREWS, N. *Principles of civil procedure*, London: Sweet and Maxwell, 1994.
- BAILEY, S.H. eta GUNN, M.J. *Smith and Bailey on the Modern English Legal System*, 3. argitalpena, London: Sweet and Maxwell, 1996.
- KIRALFY, A.K.R. *The english legal system*, 8. argitalpena, London: Sweet and Maxwell, 1990.
- *Lord Chancellor*-ari buruzko informazio gehiago interneteko [www.lcd.gov.uk](http://www.lcd.gov.uk) helbidean.

69. Testuan aipatuak izan diren ordenean.